



LA VILLE DE BAYONNE PRÉSENTE  
EXPOSITION | ERAKUSKETA

# TALENTS DU PAYS BASQUE EUSKAL HERRIKO TALENTUAK

ANNE KUHN - KEPA ETCHANDY - ABEL BOURGEOIS

2020KO UZTAILAREN 18TIK IRAILAREN 13RA  
Astelehenetik igandera 14:00etatik 19:00etara  
Sartzea libre

**D | DAM** BAYONNE

6 QUAI DE LESSEPS  
LESSEPS KAIA, 6

**Bayonne**  
BAIONA-PAYS BASQUE  
Plurielle et si singulière

---

**K**ultura arloko hainbat egituren gisara, DIDAM-ek ere berriz ikusi behar izan du bere programazioa uda oso berezi honetarako. Osasun krisia arrunt konpondua ez bada ere, aukera eremu berri bat ireki dute, hurbilagoena zaigunaren begieste eta entzuteko denbora gehiago iragaiteko, lehengo neurrigabeko erritmoei segitzeko ordez. Horrela, Baiona Hiriak nahi izan du berriz irekitze honen kariatara, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten talentu handiko hiru argazkilari argira ekarri: KEPA ETCHANDY, ABEL BOURGEOIS eta ANNE KUHN. Haien sormena ikuspegi arrunt desberdinen bidez adierazten badute ere, askatasuna eta irudimenaren geografian zehar bidai originala eskaintzen digute irudi hauek.

KEPA ETCHANDY, berriemaile-argazkilaria, haren sorterriari sakonki lotua, bisitariaren begirada Euskal Herriaz usaian erakutsia zaionaz arras beste motako irudiekin apaintzen du, aldi berean historikoa eta bizia den kultura bateratua nehoiz ahantzi gabe.

ABEL BOURGEOIS, sténopé edo ganberako lana bezalako teknika zaharrak erabiltzen dituen artista autodidakta, lanbro eta zuhaitz nahastekatuen alegiazkoan murgildu Aragoiko ingurumen miresgarri eta misterioetsuetara garraiatzen gaitu.

ANNE KUHN-EK nahiago izan du emazteen egoera galdekatu. Haien nortasuna eta balentrien bidez mundua aitzinarazi duten literatura eta Historiako emazte heroiak argira ekarriz askatasun indibiduala zentzu zabalean galdekatzen du artoski apailatu eszenografia baroko eta garaikideak erabiliz.

Hiru begirada singular hauen bitartez, berriz jinen zaigu gauza berriak ezagutzeko tirria eta lurralde honek eskaintzen digun sormenerako jeinu anitza. Zabal ditzagun berriz zerumugak!

Jean-René Etchegaray, Baionako Auzapeza

**C**omme nombre de structures culturelles, le DIDAM a été contraint de revoir sa programmation pour cet été particulier. Si la crise sanitaire n'est pas encore tout-à-fait dépassée, elle a ouvert un champ de possibilités où les rythmes effrénés ont laissé place à l'écoute et à la contemplation de ce qui nous est le plus proche.

Ainsi, la Ville de Bayonne a souhaité, pour cette réouverture, mettre à l'honneur trois photographes de talent vivant et travaillant au Pays Basque : KEPA ETCHANDY, ABEL BOURGEOIS et ANNE KUHN. Si leurs approches créatives sont profondément différentes, leurs images proposent toutes un voyage original dans une géographie de la liberté et de l'imaginaire.

KEPA ETCHANDY, photoreporter attaché à son territoire natal, accompagne le regard du visiteur loin des clichés habituels du Pays Basque, sans jamais oublier une culture commune à la fois historique et vivante.

ABEL BOURGEOIS, artiste autodidacte jouant avec des techniques anciennes comme le sténopé ou le travail à la chambre, nous transporte quant à lui vers de somptueux et mystérieux paysages d'Aragon plongés dans l'irréel de brumes et d'arbres entremêlés.

ANNE KUHN a choisi d'interroger la condition féminine. S'attachant à des héroïnes de la littérature et de l'Histoire qui, par leurs personnalités et leurs exploits, ont fait progresser le monde, elle questionne la liberté individuelle au sens large dans des mises en scène soigneusement élaborées, à la fois baroques et contemporaines. À travers ces trois regards singuliers, retrouvons le goût de la découverte et apprécions le talent créatif et multiple que nous propose ce territoire. Ouvrons à nouveau les horizons !

Jean-René Etchegaray, Maire de Bayonne

---

---

# EUSKAL HERRIKO TALENTUAK

ANNE KUHN - KEPA ETCHANDY - ABEL BOURGEOIS

---

ANNE KUHN

« Inoiz libre ote gara? Gaztetik nehoren ardurapean hazi den neskatxa ote da jadanik galdera bere buruari luzatzen diona? Edo etxeko lanen preso den ama gazte idealista? Edo oraino ere hemendik aitzina bere ardura parteaz oharturik den heldua? Askatasuna gure hertsapenen, gure hautuen, gure akatsen edota eskarmentuaren arabera dea? ... Literaturako emazte heroi batzuek gaia gogoetatzen lagundu naute. Gizon munduaren meneko, beren bizi-baldintzen edo garaiazen biktimak, baina barne tirabiretan harrapatu ere, horietako anitzek ez dute beren bizitzaren joiran eraginik izaten ahal. Bi argazkitan, emazte horiei beren patua aldatzeko parada eskaintzen diet, nehoiz baino gehiago aktualitatean den beren historia, testuingurura berriz ekarriz. Hainbat galde bat-batean agertzen dira, lan bakoitzaren izenburua itxuratuz:

«Independentzia osoz bere buruaren jabe izatea goraki aldarrikatzea beti hain nekea dea emazte batentzat?» «“Gizarte-igogailua” gutiengo bati soilik irekia zaioa beti?» edo, guziz sinpleki, «Zer goaita zehazki?». Askatze ororen konkistatzeaz hitz-hartze estetikoa, emazte ikuspuntu batetik, funtsean gai unibertsal batzuk jorratzen dituena.

Dantzari profesional ohia, ANNE KUHN-ek argazkilari ofizioa hogei urtetan berea bilakatzea lortu du. Lehenik Gamma agentziarekin kontratupean jende ospetsuaren potreta egilea, ondotik bere unibertsoa itxura hartzen hasiko den estudioetan argazkilariak, arte adierazpen berezia baieztatzen du hemendik aitzina. Erakusketa horren kari, *Feminae Singulares* izeneko bilduma berritik atera potreta batzuk agertzen dira.

ABEL BOURGEOIS

ABEL BOURGEOIS Angelun bizi eta lanean ari da. Ofizioz zurgina, autodidakta hori haurtzarotik dabil argazkigintzan. Bere tresnak sortzen ditu, zur, plastiko eta burdinari esker. Bere egin-moldeak hala sortuz, emaitza bereziak erdiesten ditu bere sorkuntza-bideak diren lausotasuna, pikorra eta deformazioaren bitartez. Eskulan argazkigintza, goma bikromatua eta ur-leiarraren bidezko kamera estenoipeikoa landuz, erdietsiriko irudiak begiratzen dituztenei beren irudimena txertatzeko lekua uzten die.

Politta erraten den argazkia ez zaio aski. Bere argazki hartzeari eta bere gaiei tresna egokitzea maite du, teknika baino giro eta sentsazio bilaketa lehenetsiz. *Aragon II* izeneko bilduman Aragoiko Guara mendilerroko paisaiak ximenki ditu ikuskatzen. Hendaiaiko L'Angle Photographies galerian estrenaldikoz aukeztuak, irudi berri batzuek dituzte argazki horiek osatuko DIDAMen, batean landarezkoa, minerala eta akuatikoa den negu giro onirikoan ikuslea oraino gehiago punlunparaziz. Utz dezagun errealitatearen eta ametsaren arteko muga ukiezin horrek gure buruak brastakoan harrapa ditzan...



Argazki Kreditua : Diane,  
série Héroïnes©Anne Kuhn



Argazki Kreditua : aragon\_2019\_9©Abel



Argazki Kreditua :  
Larraine©Kepa Etchandy



Argazki Kreditua : aragon\_2019\_9©Abel



Argazki Kreditua : Kostaldea, la Côte Basque©Kepa

## KEPA ETCHANDY

KEPA ETCHANDY fototeka, *Ibaifoto*, 50 000 argazkitik gorak osatzen dute. Duela hogei urte baino gehiago Euskal Herrian lan eginez, begirada zorrotzeko argazkilari profesional honek hainbat gai jorratzen du: arkitekturarena, mendiarena, laborantza munduarena, itsas eremuarena, tokiko kirolena, edota ohidurak, hala nola Baionako pestak, San Ferminak, Xiberoko pastoralak edo oraino ere Olentzero. Bere irudiak tokiko prentsan, nazio edo Europa mailakoetan argitaratuak dira ardurara eta liburu anitzetan ere bai.

Erakusketa honen kariatara, muino berdeen eta hondartza eguzkitsuen betiko klitxeetatik urrun, Euskal Herrian hartu argazki bilduma aurkezten du KEPA ETCHANDYK. Aldi berean historikoa eta bizia den kultura amankomunean zehar laguntzen du bisitariaren begirada, argiak eta irudi mugatzeak berritzen dituzten zeruertzekin topo egitera joanez. Argazki horiek Kilika argitaletxearekin partaidetzan sortzen ari den liburu xede batean daude (argitaratzea 2020ko azaroko aitzinikusia).



Argazki Kreditua : Zerain©Kepa Etchandy

# ERAKUSKETAREN INGURUAN

Informazio : [didam@bayonne.fr](mailto:didam@bayonne.fr) / 05 59 46 63 43 (arratsalde)

## DIDAM | UZTAILAREN 18A, LARUNBATA

11:00 > ERAKUSKETAREN ESTRENALDIA

## DIDAM | UZTAILAREN 27A, ASTELEHENA

9:30-12:30 > IDAZKETA TAILERRA - FRANTSESEZ

Denei irekia eta Laurent Platerok animatua, Revues Encre[s]

Ordainduz: 10 €. Izen ematea: [mediation.didam@bayonne.fr](mailto:mediation.didam@bayonne.fr) edo 05 59 46 63 58.

## DIDAM | UZTAILAREN 25A ETA ABUZTUAREN 22A, LARUNBATA

17:00-18:00 > BISITA GIDATUA EUSKARAZ,

Maika Lapouble, hizlariak animaturik.

Izen emanez [mediation.didam@bayonne.fr](mailto:mediation.didam@bayonne.fr) helbidean edo 05 59 46 63 58ra deituz.

Osasun protokoloa dela-eta, leku kopuru mugatua.

Dohainik.

## DIDAM | UZTAILAREN 30A ETA ABUZTUAREN 20A, OSTEGUNA

18:00-19:00 > ERAKUSKETAREN BISITA GIDATUA,

DIDAMeko bitartekariak segurtaturik.

Izen emanez [mediation.didam@bayonne.fr](mailto:mediation.didam@bayonne.fr) helbidean edo 05 59 46 63 58ra deituz.

Osasun protokoloa dela-eta, leku kopuru mugatua.

Dohainik.

## DIDAM | IRAILAREN 11TIK 13RA

### ARTISTEkin TOPAKETA

IRAILAREN 11, OSTIRALA 17:30 / ABEL BOURGEOIS

IRAILAREN 12A, LARUNBATA 17:30 / ANNE KUHN

IRAILAREN 13A, IGANDEA 17:30 / KEPA ETCHANDY

*Voyage au pays des Basques* argazki liburuaren aurkezpena Vincent

AHETZE-ETCHEBERS, Kilika argitaletxearen eskutik eta Kepa ETCHANDYrekin topaketa

Izena emanez [mediation.didam@bayonne.fr](mailto:mediation.didam@bayonne.fr) helbidean edo 05 59 46 63 58ra deituz.

Osasun protokoloa dela-eta, leku kopuru mugatua.

Dohainik.

## ESKOLAK ETA ELKARTEAK

Dohainikako bisita gidatuak DIDAMeko taldearen eskutik.

Hitzordua finkatuz leku eta denbora-tarte posibilitateen arabera:

[mediation.didam@bayonne.fr](mailto:mediation.didam@bayonne.fr) / 05 59 46 63 58

Osasun protokoloa sartzean izan daiteke egoeraren bilkaeraren arabera.

### DIDAM

Baiona Hiriko arte garaikide gunea

Lesseps kaia, 6

Astelehenetik igandera, 14:00etatik 19:00etara

(Maiatzaren 1ean, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean hetsia)

05 59 46 63 43

[didam.bayonne.fr](http://didam.bayonne.fr)



Argazki Kreditua : Lol V. Stein, série Héroïnes©Anne

**DIDAM**

6 QUAI DE LESSEPS – BAYONNE  
LESSEPS KAIA, 6 – BAIONA

ARTE GARAIKIDEKO ESPAZIOA

INFORMAZIO | DIRECTION DE LA CULTURE ET DU PATRIMOINE DE  
LA VILLE DE BAYONNE | XEHETASUNAK | BAIONAKO KULTURA ETA  
ONDAREAREN ZUZENDARITZA | 05 59 46 63 43 | DIDAM.BAYONNE.FR

BAIONA HIRIAK ERAKUSKETAREN PARTAIDEAK ESKERTZEN DITU

